

Eutanasia Legeak lau urte: DMD-DHE Euskadik aintzat hartzen ditu egindako aurrerapenak, baina legearen aplikazioan gabeziak daudela adieraziz

Eutanasia Arautzeko Lege Organikoa (LORE) indarrean sartu zenetik laugarren urteurrena dela eta, Derecho a Morir Dignamente/Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Elkarteak (DMD-DHE Euskadi) prestazio horrek gaur egun autonomia-erkidegoan duen egoeraren balantzea egiten du, lortutako aurrerapenak aitortuz, baina heriotza duina izateko eskubidean oraindik dauden oztopoak bereziki nabarmenduz.

2021eko ekainaren 25ean LORE onartu izana urrats garrantzitsua izan da sufrimendu larri eta atzeraezineko egoeretan hiltzeko laguntza medikoa eskatzeko eskubidearen normalizazioan. Euskadin eragozpen handirik gabe ezarri da, implikatutako profesional askoren lanari eta konpromisoari esker.

Hala ere, DMD-DHEk, Berme eta Ebaluazio Batzordearen (BEB) urteko txostenetan eta bildutako testigantzetan oinarrituta, hainbat adierazle identifikatu ditu eskubidea ez dela bere osotasunean gauzatzen ari adierazten dutenak:

- Legearen erabilera urria: 2024an 126 eskaera aurkeztu ziren eta 56 onartu, hau da, Euskadiko heriotzen %0,25 baino ez; antzeko araudiak dituzten beste herrialde batzuen (Herbehereak edo Kanada, %3 eta %5 artean) oso azpitik.
- Tramitazio bitartean hildakoak: Eskatzaileen %43 tramitazioa gauzatzen zen bitartean hil ziren, horietako asko hurbileko heriotza baten berezko sufrimendu handiko egoeran. Horrek agerian uzten du legean ezarritako epeak ez direla behar bezala egokitzen premiazko kasuetara.
- Zailtasunak prozesuaren hasieran: Profesional batzuek oztopoak jartzen dituzte eskaerak bideratzeko unean, eta oro har herritarrek ez dute informaziorik prestazio horri buruz; horren ondorioz zaila egiten zaio jendeari prozedurarako sarbidea izatea.
- Eskualdeen arteko desberdintasunak: Alde nabarmenak ikusten dira eskualdeen artean, eta ez dago argi zergatik. 2024an, eutanasien tasa, hildakoen aldean, %0,33koa izan zen Gipuzkoan, %0,20koa Araban eta %0,16koa Bizkaian.

Ez dago egoera horien kausen azterketarik, baina uste dugu honako hauek azal ditzaketela:

- Balio kultural eta ideologia kontserbadoreen iraunkortasuna.
- Osasun-sisteman prestakuntza eta baliabide gehiagoren beharra pertsonak bizitzaren amaierak modu egokian artatzeko.
- Instituzioen implikazio txikia bizitzaren amaierako eskubideen hedapenean.

Profesionalentzako prestakuntza eta herritarrentzako informazioa hobetzeaz gain, ondoko urratsak jotzen ditugu beharrezkotzat:

- Euskadiko Heriotzaren Behatokia sortzea, heriotzaren kalitatean eta eskubideen erabilera eraginkorrean eragiten duten faktoreak sakon aztertzeko.
- Erregistro-bide alternatibo bat ezartzea, bide ofizialean zaitasunak dauden kasuetan eutanasia-eskabideak bideratzen hasteko.

Azkenik, DMD-DHEk gogorarazi du, LORE hor izan arren, oraindik badaudela modu jasanezinean sufritzen duten eta egungo legea baliagarri ez zaien pertsonak, edo estigmatizatuta daudenak: hor sartzen dira, besteak beste, buruko gaixotasun larriak dituztenak, egoera larri eta atzeraezinetan dauden adingabeak edo beren bizitza amaierara iritsi dela eta jada zentzurik ez duela uste dutenak. Elkarteak eskubideak zabaltzeko konpromisoa berretsi nahi du heriotza duina, askea eta pertsona bakoitzaren balioekin bat datorrena bermatze aldera.

Ezin dugu amaitu elkartasuna adierazi gabe aipatutako oztopoengatik legea nahi bezala erabili ezin izan duten hildako pertsonei eta haien familiei. DMD-DHEk gogorarazi nahi du prest dagoela eta informazioa eta aholkularitza eskaintzen dizkiela herritarrei heriotza on bat lortzeko.

Prentsa kontaktua:

DMD-DHE Euskadi
Araba kalea, 6 erdi-sotoa, 48014 Bilbo
Tel: 635 738 131
Tel. Araba: 688 885 161
Tel. Bizkaia: 635 738 131
Tel. Gipuzkoa: 688 685 378
Email: dmdeuskadi@derechoamorir.org
Web: www.derechoamorir.org

NOTA DE PRENSA

25 de junio de 2025

Cuatro años de la Ley de Eutanasia: DMD-DHE Euskadi valora los avances y señala carencias en su aplicación

Con motivo del cuarto aniversario de la entrada en vigor de la Ley Orgánica de Regulación de la Eutanasia (LORE), la Asociación Derecho a Morir Dignamente – Duintasunez Hiltzeko Eskubidea de Euskadi (DMD-DHE) realiza un balance de la situación actual de esta prestación en la comunidad autónoma, reconociendo los avances logrados, pero destacando especialmente las barreras que aún impiden un acceso equitativo y efectivo al derecho a una muerte digna.

La aprobación de la LORE, el 25 de junio de 2021, ha supuesto un paso relevante en la normalización del derecho a solicitar ayuda médica para morir en situaciones de sufrimiento grave e irreversible. En Euskadi, su implementación se ha desarrollado sin excesivos contratiempos, gracias al trabajo y el compromiso de muchas y muchos profesionales implicados.

Sin embargo, DMD-DHE ha identificado, a partir de los informes anuales de la Comisión de Garantía y Evaluación (CGE) y testimonios recogidos, varios indicadores de que este derecho no se está ejerciendo plenamente:

- **Bajo uso de la ley:** En 2024 se presentaron 126 solicitudes y se aprobaron 56, lo que representa solo el 0,25% de los fallecimientos en Euskadi, muy por debajo de otros países con marcos similares como Países Bajos o Canadá (entre el 3% y el 5%).
- **Fallecimientos durante la tramitación:** El 43% de las personas solicitantes murieron antes de recibir respuesta, muchas en situación de gran sufrimiento propio de un fallecimiento próximo, lo que evidencia que los plazos legales no se adaptan adecuadamente a los casos urgentes.
- **Dificultades en el inicio del proceso:** Persisten obstáculos por parte de algunos profesionales para tramitar solicitudes, así como carencias en la información que tiene la ciudadanía sobre esta prestación, lo que dificulta el acceso al procedimiento.
- **Desigualdades territoriales:** Se observan diferencias significativas entre territorios sin que estén claros los motivos. En 2024, la tasa de eutanasias respecto a los fallecimientos fue del 0,33% en Gipuzkoa, 0,20% en Araba y 0,16% en Bizkaia.

No existe un análisis de las causas que originan estas situaciones pero consideramos que las siguientes podrían explicarlas:

- La persistencia de valores culturales o ideológicos conservadores.
- La necesidad de más formación y recursos en el sistema sanitario para la atención de las personas en el final de la vida.
- La baja implicación institucional en la difusión de derechos al final de la vida.

NOTA DE PRENSA

Además de mejorar la formación a profesionales y la información a la ciudadanía vemos necesario:

- La creación del Observatorio de la Muerte de Euskadi, para analizar en profundidad los factores que influyen en la calidad de la muerte y en el ejercicio efectivo de derechos.
- La habilitación de una vía alternativa de registro para iniciar solicitudes de eutanasia en caso de dificultades con la vía oficial.

Finalmente, DMD-DHE recuerda que, a pesar de la LORE, aún hay personas que sufren de forma insoportable y no pueden acogerse a la ley actual o lo hacen con estigmas, como quienes padecen enfermedades mentales graves, menores en situaciones graves e irreversibles o quienes consideran que su vida ha llegado a su fin y ya no tiene sentido. La Asociación reitera su compromiso con la ampliación de derechos para garantizar una muerte digna, libre y acorde a los valores de cada persona.

No podemos concluir sin una muestra de solidaridad con las personas fallecidas y sus familias que no han podido hacer uso de la ley, como hubieran deseado, a causa de los obstáculos mencionados. DMD-DHE recuerda su disponibilidad y ofrecimiento de información y asesoramiento a la ciudadanía para conseguir una buena muerte.

Contacto de prensa:

DMD-DHE Euskadi
C/ Araba, 6 semisótano, 48014 Bilbao
Tel: 635 738 131
Tel. Araba: 688 885 161
Tel. Bizkaia: 635 738 131
Tel. Gipuzkoa: 688 685 378
Email: dmdeuskadi@derechoamorir.org
Web: www.derechoamorir.org